

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BEASAINGO UDALAREN 2009-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Beasaingo Udalaren 2009ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Kontu Orokorren fiskalizazio txostenak -Udalaren, bere Erakunde Autonomoen eta Sozietate Publikoaren kontuak barne hartzen dituenak- legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, zorpetze, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezketasunaren atalean, Epaitegiak udalaren eta erakunde autonomoen jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zulentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Kontratazioaren atalean, HKEEk adierazi du Udalak urratu egin dituela administrazioko kontratazioa arautzen duten arauak. Hona hemen adierazgarrienak: Hainbat enpresak gauzatutako obren kontratu-xedea ez da kontratazio espediente bakar batean izapidetu, osorik eta publizitatea eginda; gainera, behin obrak gauzatu ondoren, gastuak onartu dira aurrekontuan aldaketa bat eginez, kreditu osagarriaren moldea baliatuta; zerbitzu kontratuetako lizitazioak ez dira argitara eman ez DOUEn, ez BOEn ere; hasiera batean esleitutako zenbatekoa % 40 inguru gehitu da eta hainbat kontratu aldaketa gauzatu dira zerbitzu kontratu batean; horrek desitxuratu egiten du bai kontratuaren xedea, bai horren bolumen ekonomikoa ere.

Udalaren eta bere erakunde autonomoen Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horien aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, akatsa azaleratu du, besteak beste, kontabilitateari egindako hainbat doiketen ondorioz, Udalaren Diruzaintza Geldikina 205 mila euroan gehitu dutenak.

Beasain Lantzen sozietate publikoari dagokionez, HKEEk jarduera arautzen duen lege arautegia zulentasunez bete duela 2009ko ekitaldian egiaztatu du, nahiz Antzizar kirol-

gune berriari dagokionez, kontratazioaren arautegian hainbat ez-betetze azaleratu dituen. Honela, bada, obrei dagokienez, aldaketak egin dira bi kontratutan; ez dago behar bezain justifikatua aldaketa horiek beharizan berri eta ustekabekoen ondorio direnik eta % 77 eta % 54ko igoerak eragin dituzten obren exekuzio zenbatekoetan; horrek kontratuaren xedea ez ezik, kontratuaren bolumena ere desitxuratzen du; gauza bera gertatu da proiektuaren eta obra zuzendaritzaren kontratuarekin; berebat, publizitate eta lehia printzipioak urratu dira bi obraren eta hornigai baten esleipenetan eta ez da ez DOUEn, ez BOEn argitaratu zuzenean esleitutako hornidura kontratu bat; zenbatekoa aintzat hartuta, ordea, publizitatea eman behar zitzaiokeen.

Sozietate publikoaren urteko kontuei dagokienez, HKEEk aldeko iritzia plazaratu du aurkezpen eta edukiari dagokionez, txostenean bertan jaso diren hainbat salbuespen kenduta.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu eta kontabilitate, sarrera fiskal, langileria, kontratazio eta diru-laguntzen ataletan.

Amaitzeko, Udalaren egoera finantzarioari dagokionez esan behar da 2009ko ekitaldiko kapital eragiketen kopuru handia jasotako kapital transferentziekin, ekitaldiaren aurrezki garbi positiboekin eta Udal Finantzaketarako Foru Funtzaren (UFFF) likidazio negatiboari dagokion ordainketa geroratzearekin finantzatu dela; berebat, finantzaketa iturri horiek behar hainbatekoak izan ez direnez gero, defizitari aurreko ekitaldiko Diruzaintza Geldikinetik eratorritako 1,9 milioi euroekin egin zaio aurre.